

Bankuak milioi bat eurora bitarteko kreditu linea irekiko du

MicroBank-ek eta Cederna Garalur Elkarteak beren lehen lankidetzaren hitzarmena sinatu dute jardueraren ekintzailea sustatzeko

- **MicroBank-en eta Cederna Garalur Elkartearen arteko hitzarmenak finantziarioa lortzeko bidea emanen du, enplegua sortzea eta finkatzea helburu hartuta, negozio berriak martxan paratzen laguntzeko.**
- **MicroBank-ek 132.307 mailegu eman ditu; denetara, 829,6 milioi euro. Bera da eskusiboki enpresa-proiektuak eta negozioak mikro-kredituen bidez finantzatzeko dituen erakunde bakarra. Nafarroan, bankuak 658 mailegu eman ditu urtarileraren bitartean; denetara, 4,4 milioi euro.**

Antsoainen, 2012ko otsailaren 27an.- MicroBank-eko zuzendari Ramon Gattelek eta Cederna Garalur Elkartearen lehendakari Jose Maria Ayerdik lehen lankidetzaren hitzarmena sinatu dute mikro-kredituen bidez enpresa-proiektuak finantzatzeko ahalbidetze aldera. Hitzarmena sinatuta, finantziario-linea berriak finkatu dira, autoenpleguko proiektuak dituzten pertsonen zein autonomoen eta mikro-enpresetako gazteen zuzenduta. MicroBank-ek milioi bat eurora bitarteko kreditu-inbertsioa egingen du.

Cederna Garalur Elkartearen irabazi asmorik gabeko erakundea da, 1991n sortua. Helburua du toki-erakundearen eta zonaldeko eragile ekonomiko eta sozialen lankidetzaren bitartez Nafarroako Mendialdearen garapena bultzatzea. Elkartearen Nafarroako Mendialdeko hainbat udalek eta enpresa-erakundeak, sindikatuk, nekazaritzako erakunde profesionalak, kultura-, kirol- eta landaturismoko erakundeak, finantza-erakundeak eta bestelako erakunde laguntzaileak osatzen dute.

130.000 mikrokreditu baino gehiago

Bere jarduera abian jarri zuenetik, MicroBank-ek 132.307 mikrokreditu eman ditu; denetara 829,6 milioi euro. Horrela, mikrokredituen bidez proiektuak finantzatzera baliabide gehien bideratzen dituen finantza-erakundea da. Batetik, **ekintzaileentzako mikrokredituak** ematen ditu autonomoentzat, enpresaburu txikientzat eta ekintzaileentzat; gehienez ere, 25.000 euro. Bestetik, **mikrokreditu pertsonalak eta familiarrak** ematen ditu; mikrokreditu horien helburua da familiei laguntzea premiak gainditzeko, unean-uneko zailtasunei aurre egiteko eta garapen pertsonala eta familiarra errazteko.

Finantza-erakundeak ekintzaileei emandako mikrokredituen % 60 enpresak sortzera bideratu da, eta % 40, berriz, dagoeneko eratuta dauden mikroenpresen hazkunde-premiak finantzatzeko izan da. Mikrokreditu pertsonalak, bestalde, erakundeak eman dituen kredituen erdia baino gehiago dira gaur egun. Funtsean bi irizpide ditu MicroBank-ek mikrokredituak emateko; batetik, mailegua eskatzen duen pertsonarekiko konfiantza, eta, bestetik, proiektuaren bideragarritasuna. Mikrokreditu horiek bermerik eta abalik ez duten pertsonak eskura ditzakete.

Akordioak 400 gizarte-erakunderekin baino gehiagorekin

Mikrokredituak emateko, «la Caixa»ko 5.300 bulegoko sareaz gain, kredituak jasoko dituzten pertsonen buruzko ezagutza ematen duten hainbat erakunde laguntzailek parte hartzen du. Erakunde horiek proiektuei buruzko aholkua eta proiektuen jarraipena ere egiten dute. Gaur arte, MicroBank-ek finantzatzeko proiektuen bideragarritasunaz arduratzen diren Espainia osoko 417 gizarte-erakunderekin sinatu ditu akordioak. Gizarte-erakunde laguntzaileak mota guztietako erakundeak dira, mikroenpresak sortzea bultzatzera, auto-okupazioa indartzera eta jarduera ekintzailea sustatzera bideratutako laguntza ekonomiko edo soziala emateko ekintzetan adituak.